

2025
URTARRILA

AMAZURTZA

Joxan Oiz Arruti

Donostia, 1876ko ilbeltz elurtua. Karlisten bonbapean dago hiria, periodikoak egunero argitaratzen du zenbat pepino erori diren bezperan. Gerra amaitzen ari den ustean, hiria berriro pizteko prestatzen ari dira, kaleak zabaltzen, bazterrak argitzen. Eta hiriaren garapen horri loturik, hainbat poltsiko betetzen. Zenbaitek, ordea, granaden burrunba eta iskanbila etsaiak garbitzeko probestuko du. Kapela saltzaile bat egia bilatzen saiatuko da, ezagun baita mikeleteak, milizianoak eta karlistak, denek janzen dutela inoiz txapela.

BILDUMA HONETAN



ELEBERRI BELTZA


ISBN: **978-84-10246-26-3**
ORRIALDEAK: **284**
FORMATUA: **12 x 19**
PREZIOA: **18,00 €**

- Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko VII. (H)ilbeltza bekaren irabazlea izan zen Joxan Oizen lagina, eta Amazurtza izeneko nobela hau da emaitza.
- XIX. amaierako Donostiara garamatza liburuak, Bigarren Karlistaldiaren garai iskanbilatsura, non gaur egunean den hiriaren zimenduak jartzen ari baitziren.
- Polizia eta detektibeen klixeei muzin egin, eta kapela saltzaile bat ageri zaigu mikelete gazte baten desagertzea ikertzeko lanetan.



JOXAN OIZ ARRUTI

Donostia, 1968
Euskal Filologian lizentziatua, euskal prentsan ibilia da kolaboratzaile, kazetari eta zutabegile gisa, eta 1992az gerostik irakaskuntzan ari da. Literaturan ere aritua da, 2006an *Beñat Dardo* nobela eta *Bidasoa* poesia eta argazki liburua argitaratu baitzituen. Narrazio bilduma bat du tiradera batean gordeta, eta handitan sagardotegi bat martxan jarriko omen du.



Baztango Udala



EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko VI. (H)ilbeltza bekaren irabazlea